

3 FASEA (ekainaren 8tik aurrera)

Txikizkako establezimendu eta merkataritza-lokalak eta antzeko zerbitzuak ematen dituztenak jendearentzat zabaltzeko baldintzak



Alarma- egoera aldarrikatu eta gero euren jarduera eten duten txikizkako establezimendu eta merkataritza-lokal guztiak eta zerbitzu-jarduera profesionala dutenak jendearentzat berriz zabaldu ahal izango dira.



Lokal honeen aforoa %60era mugatuko da. Bezeroen arteko 2 metroko distantzia bermatu beharko da. Distantzia hori bermatzea ezinezkoa dan lokalen kasuan, bezero bakarra egon ahalko da establezimenduaren barruan. Lokalaren gehienezko aforoa zein dan bistan jarri beharko da.



65 urtetik gorakoak lehentasunez hartzeko ordutegia ipiniko da eta ordutegi horrek bat egin beharko du talde horrek kalean ibiltzeko eta ariketa fisikoa egiteko duen ordutegiarekin.




Jendearentzat zabaltzen duten establezimendu eta lokalak, gutxienez egunean birritan, garbitu eta desinfektatuko dira. Arreta bereziz garbitu eta desinfektatuko dira sarrien ukitzen diren gainazalak.



Establezimendu eta lokal guztiak eduki beharko dituzte saster- ontziak, ahal dela estalki eta pedaldunak, eurretan zapi eta bestelako erabili eta botatzeko gauzak bota ahal izateko.



Langile guztiak arrisku-mailari egokitutako norbera babesteko ekipoa daukatela eta gel hidroalkoholkoa etengabe daukatela ziurtatuko da.



Bezeroari arreta egiten zaion denboran, saltzaile edo zerbitzua eskaintzen duen langilearen eta bezeroaren artean gutxienez metro bateko distantzia egon beharko da babes elementu edo hesiak daudenean, eta holakorik ez dagoenean, gutxienez 2 metrokoa.



Pertsonen arteko segurtasun tarterik bermatu ezin den zerbitzuetan, langilea eta bezeroa babestuta daudela bermatzeko, dagokion norbera babesteko ekipoa erabili beharko dira.



Establezimendu eta lokaletan jendearentzako gel hidroalkoholikoak ipiniko dira eskuragarri.



Ehungintzako merkataritza-sektoreko, arropa-konponketako eta antzeko establezimenduetan probagelak pertsona bakar batek erabili beharko ditu, eta, erabili ondoren, garbitu eta desinfektatu egingo dira.



Bezero batek erosiko ez duen jantzi bat probatuko balu, establezimenduko titularrak jantzi hori higienizatzeko neurriak hartu beharko ditu.